

ALBOKA JOTZEN IKASTEKO LAGUNAK: LIBURUA ETA DISKOA

HM Bildumako liburu berriak albokari berriei soinu-tresna ikasteko oinarritzko bide bat ematearekin batera, bere izaera eta ingurua ezagutaraztea du helburu.


Herri Musika Bilduman orain arte aurkeztu diren liburuen artean soinu-tresna ezberdinei buruz idatzi da. Dultzaina eta txalapartaz bezala, albokaz ere idatzi da bilduman. Hala ere, oraingoan aurkezten dugun liburua funtzio ezberdinak betetzeko sortua da.

Albokaz eta albokariez idatzi du Juan Mari Beltranek. Ez horiez bakarrik, albokagileez eta haiek egiten zituzten alboken afinazioaz ere aritu da. Guzti horrekin batera alboka jotzen ikasteko zenbait atal ere baditu liburuak: arnasketa teknika lantzeko era bat, ariketa errazen partiturak, errepertorioko zenbait piezen partiturak, pieza hauetako batzuen grabazioak jole ezberdinek emanda...

Izan ere liburu hau albokaren irakaskuntzan aspaldian beharrezko ikusten zen behar bati erantzuten saiatzen da. Euskal Herriko albokariaren historian garai bakoitzak bere albokari mota izan badu eta horietako bakoitzak funtzio eta errepertorio jakinak izan baditu, ezin da ahaztu ikasteko era ere garaiaren arabera aldatzen joan dela, gaur egungo joera nagusia irakasle batekin musika eskola batean ikastea izanez.

Garai bateko albokari zaharrek txiki-txikitatit ezagutzen zuten alboka, baita bere musika eta bere inguruan betetzen zuten funtzioa ere. Orduan soinu-tresna eta musikari normalizatua zela esan daiteke. Gaur egun ordea albokariaren jatorria ezberdina da. Gure garaiko albokari gehien jatorri, giro, motibazio, musika ezaugarri eta helburuak ez dira orduko haien berdinak.


Hala, alboka eta albokaria "normalizatuak" ziren garai hartan etxean edo inguruan ikasten zen alboka jo-



Liburuaren azala. SNN

tzen. Gaur egun, ordea, lehen esan dugun moduan, alboka eskola batean ikastea da aukera zabalduena. Hori kontuan hartuta eta alboka jo nahi duten albokari berrien helburuak zein diren jakinik, eskakizun horiek guztiak beteko dituen eskola egokia antolatzen saiatzen ari gara.

Bide horretatik, liburuan sartu diren partituren ondoan 63 pieza MP3 formatuan biltzen dituen disko bat gehitu da. Lehenengo ageri diren joaldiak albokari zaharrenak dira. Horien segidan gaur egungo albokariak entzun



daitezke errepertorio tradizionaleko piezak edo gaur egungo estilo berrietan jotzen. Diskoko azken pistetan solen afinatutako albokarako espreski sortutako jota eta porrusalda sartu dira soinu-tresnaren eboluzioak gehitu dituen aukerei keinu eginez.

KONTZERTUAK SOINUENEAN

UDAZKENEKO KONTZERTUA

2013ko urriaren 19an - 18:30tan Soinuenean

ARTUR BLASCO

Pirinioetatik akordeoi diatonikoaren
berreskurapena Katalunian

**SARRERA
5 EURO**

Barcelonan 1933ko azaroaren 5ean jaio zen Artur Blasco Giné. Santpedor (Bages) izan zuen bizileku 17 urte bete zituen arte eta handik joaten zen Manresara, besteak beste, musika ikastera.

Alt Urgell eskualdeko Arsèguel eta La Seu d'Urgell-en zebilela, 1965ean akordeoi diatonikoa eta honek Pirinioetako herri musikan 100 urtetan zehar izan duen eraginaren inguruko ikerketa eta berreskurapenerako lana hasi zuen. Bartzelonan Montjuic-eko Kongresu Jauregian ospatu zen *I Congreso de Cultura Popular y Tradicional*-ean gaiari buruz aurkeztu zuen txostena dela eta 1981ean proiektua burutzeko erakundeen babesa lortu zuen.

Kataluniar Pirinioetako kantutegiaren eta ahozko tradizioaren ikerketa eta hedatze lana 1966an hasi zuen. Landa-lanean kantari informatzaileei hartutako abestien testu, partitura eta fitxak 1999an argitaratzen hasi zen 12 bolumenetan banatutako *A peu pels camins del cançoner* izen generikoa duen bilduman.

Akordeoiarekin egiten den herri musika oinarri duen *Trobada amb els acordeonistes del Pirineu* (Pirinioetako soinu-joleekin topaketa) jaialdiari hasiera 1976an Arsèguel-en eman zion. Geroztik urtero ospatzen da.



Berrixegoa da herri berean Artur Blascok sortu zuen Akordeoiaren Museoa: 1988koa hain zuzen.

Hainbeste urtetan etnomusikologian egindako lanaren ondoren, bere herrialdeko erakundeek lehenengo aldiz 1994an saritu zuten. Orduko hartan Kataluniako Generalitateak Herri Musikaren Sari Nazionala eman zion. Geroztik hainbat aitortpen gehiago jaso ditu. Horien artean: 1998an Bartzelonako udalak Jaume I Saria, 2001ean Kataluniako Generalitateak Creu de Sant Jordi, urte bete

beranduago Segoviako Antonio Machado Unibertsitateak Agapito Marazuela Folklore Sari Nazionala, 2004an Kataluniako Generalitateak Kultura Herrikoien Sari Nazionala.

Kontzertu honetan joko dituen piezetako gehienak aipatu diren ikerketetan Kataluniako Pirinioetan lehenengo soinu-joleei hartutako dantzetako batzuk dira. Tartean Kataluniako Pirinioetako kantutegi herrikoitik hautatuko zenbait abesti ere sartu ditu egitarauan.

Udazkeneko kontzertua SOINUENEA - Herri Musikaren Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Auzokalte Elkartearen izango da, kontzerturako erabiliko den areto berdinean. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita. Prezioa (kontzertua barne): 20 euro.



kontzertu honen
laguntzaileak:



HERNANIKO MUSIKA ESKOLAKO ALBOKA TALDEA



Hernaniko Udalaren babespean, 1985ean jarri zen martxan geroago Hernani Musika Eskola Publikoa bihurtu zen Udal Musika Kontserbatorioa. Musika eskola berrian euskal soinu-tresnak irakatsi behar zirela hasieratik erabaki zen, eta, ordurako musika ikastetxeetan "normalizatuta" zegoen txistuarekin batera, alboka, dultzaina, txalaparta eta trikitixa eskolak jarri ziren.

Ikasturtez ikasturte, eskola hau albokari berrien prestakuntzarako hainbat arlo lantzen dituen egitarau bat garatuz joan da. Hala, ikasleak alboka jotzen trebatzeko, motibatuz eta animatzeko, hasieratik ikasketa programarekin batera eskolako alboka ikasleen taldea antolatu zen. Talde hori alboka jotzen Hernani inguruan eta beste eskualdeetan antolatutako hainbat ospakizun eta festetan ibiltzen da.

Hernaniko Eskolako Alboka Taldeak 1987ko lehen Txalaparta Festan eskaini zuen bere lehen emanaldia eta geroztik hamaika plazatan ibili da. Eskolako belaunaldi zahar eta berriek osatzen duten talde honek, besteak beste, ekitaldi hauetan parte hartu du: "Igenderoko kale musika saioak" zikloan. 1988-89 ikasturtean Hernanin martxan jarri zen zikloa da

hau. Bertan eskolako ikasleen akordeoi, dultzaina, trikitixa eta txistu taldeek txandaka parte hartzen zuten. 1989-90 ikasturtean, txandakatzeko hasierako talde haien hartean eskolako alboka taldea sartu zen, eta geroztik horretan jarraitzen du.

Pixkanaka, Hernaniko Eskolako Alboka Taldea urtean zehar Hernanin ospatzen diren festa eta ospakizunak bere partaidetzarekin aberasten joan da. Hala nola; Inauterietan, Sanjoanetan, Txalaparta Festan...

1990 inguruan Hernanitik kanpora ateratzen hasi zen; Nafarroa Oinez, Kilometroak, Donostiako Santomasak, Iruñeko albokarien topaketa...

1997tik aurrera Zaldibian urtero ospatzen den Ardiki egunean izaten da, baita Euskal Herrian zehar antolatzen den Alboka Egunean ere.

Bestalde, Hernaniko Eskolako Alboka Taldea da alboka eta albokariaren arteko elkar ezagutza eta elkar lana bultzatu nahian, 1994tik aurrera, urtero hutsik gabe *Albokarien Herna-*

niko Topaketa antolatzeaz arduratzen dena.

Juan Mari Beltran, eskolako alboka irakaslea, izan zen taldearen sortzailea eta 2009a arte taldearen zuzendaria. 2009tik aurrera Aritz Ezeiza da Alboka Eskolako irakaslea eta orduz geroztik berak zuzentzen du talde hau.

Kontzertu honetarako, eskolako hainbat belaunaldiz osatutako taldeak, albokak historian zehar izan duen ibilbide eta joera desberdinei keinu eginez, errepertorio zabaleko emanaldia prestatu du. Kontzertuaren xedea hau izango da: 1960ko albokari beterranoen errepertorioa, ondorengo albokaren berpizkundea, albokari berrien eskutik lortutako indarketa eta musika mota desberdinen jorraketa, eta azkenik, aurrera begira zer?

Aipatu bezala, kontzertua emango dutenak Hernaniko alboka eskolako ikasle eta ikasle ohiak izango dira, baita beste laguntzaile batzuk ere.

HAUR eta FAMILIENTZAT KONTZERTU DIDAKTIKOA

HERNANIKO
MUSIKA ESKOLAKO
HAUR ALBOKARIAK

Lekua: Soinuenea
Ergoien auzoa
20180 Oiartzun

Eguna: 2013-10-19

Ordua: 11:30

DANIMARKATIK BISITAN

Pasa den abuztuaren bukaeran bisita berezia izan genuen. Europa iparraldetik. Muskariz eta dantzariz osatutako De Dysted Spillefolk eta Fensmark Folkedansere talde daniarrak etorri zitzaizkigun bisitan. Pasaiko Alkarkidek gonbidatuta etorri ziren Euskal Herrira eta gure lurraldean emanaldi ugari eskaini zituzten, tartean Soinueneak antolatutako udako herri musika kontzertua.

Emanaldien artean Soinuenea bisitatzeko aukera izan zuten. Gure azalpenak atentzio handiz jarraitzeaz gain, beraien lurraldeko hainbat herri soinu-tresnarekin duten esperientzia elkarbanatu zuten. Bisitaren bukaeran oroigarri trukea eta argazki ateratzea izan zen.



OIARTZUNGO HM ESKOLA HASIA

Irailaren erdialdetik Oiartzungo HM Eskola abian da. Klaseak Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan, gaur egun eskolak bere ikasgelak han ditu, ari dira ematen. Astelehenetan Ixiar Jauregi eta Jon Patxerekin herri perkusioa ikasten aritzen dira eta txistu-danbolina Jon Ansorenarekin. Asteazkenetan alboka eta dultzaina erakusten ditu Haritz Ezeizak eta xirolarrua Juan Mari Beltranek eta Fernando Jalónnek. Ostegunetan Lara Mítxelena arduratzen da txalaparta eta musika lengoia erakustez. Astea bukatzeko berriz, ostiralez, biolina jotzen ikasi nahi duenari erakusten dio Arkaitz Minerrek.

Gogoratu, soinu-tresna jotzen maila egokia duenarentzat talde ezberdinetan parte hartzeko aukera ere badagoela. Dultzaina taldeak urte batzuetako ibilbidea dauka eta aurten txistu taldea eratu da. Bi aukera horiez gain txaranga eratzeko aukera ere irekita dago.

Matrikulatutako ikasle kopurua ona izan da. Hala ere, txalaparta, xirolarrua edota txistu-danbolina jotzen ikasi nahi duenak oraindik badu tarteren bat edo beste.



JARDUNALDIETAN HOTS BILDUMAK HIZPIDE

Azaroaren 12 eta 17 artean, Oiartzunen Herri Musikaren 12. Jardunaldiak ospatuko dira. Soinueneak egoitza Erreterian duen ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboaren laguntzaz antolatu dituen jardunaldi hauetan Hots Bildumen Kudeaketa izango da aztergaia.

Azaroaren 12an bertan, herri musikaren bilketarako sortutako Doinutegi proiektuaren inguruko erakusketa inauguratuko da.

Azaroaren 16an hots bildumen kudeaketa ardatz duten mintegia eta mahai ingurua izango dira. Hizlarien artean Eresbilgo Jon Bagues, Tabakalerako Arantza Mariskal, Juan March Fundazioko Liburutegiko José Luis Maire eta Labrit Multimediako Gaizka Aranguren ariko dira.

Azaroaren 17an Doinutegi proiektuan grabatu diren protagonistetako batzuen zuzeneko emanaldia izango da.



BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 222

Antolatutako taldeak: 8

Bisitari kopurua urria arte: 38089

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 15185

SOINUENEA - HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.org

www.soinuenea.org



OIARTZUNGO
UDALA